

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **interpelazioa** aurkezten dio **Kultura sailburu Blanca Urgelli**, Irungo alardearen inguruko albistea emateko orduan EITBk erabilitako hizkuntzari lengoaiari buruz azalpenak eman ditzan.

ZIOA:

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako 4/2005 legeak, otsailaren 18koak, dio bere 26. artikuluan 3. puntuan, "(...) emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonekiko berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduntzeko lagungarri diren jarduerak ere" eta 4. puntuan, berriz, "Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko komunikabideek bultzatu egingo dituzte, eta beren publizitate-espazioetan lehentasunezko tratua eskaini, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak, ezberdintasunak ezabatu eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuarekin, sustatzen dituen erakunde arteko kanpainei. Horretarako, beharrezkoak diren mekanismoak edo erakundeen arteko lankidetzarako itunak ezarriko dira".

Gizonen eta Emakumeen berdintasun efektiborako 3/2007 lege organikoak ere, bere 36. artikuluan dio, "Komunikabide publikoek berdintasun irudia, anitza eta gizonen eta emakumeen irudi ez estereotipatua ematea babestuko dute, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa sustatzen lagunduko dute". Era berean, 37. artikuluan, RTVEri dagokionean, bere c) letra zera dio: "Neurri zuzentzaileen bidez, berdintasun printzipioa duten edukiak zabaltzen lagunduko duten jarrera kodeak hartuko dituzte".

Hori guztia kontuan izanik,

INTERPELAZIOA:

- Zergatik erabili du EITBk, Irungo alarde baztertzaileren kasuan, "gehiengoa duen alarde tradizionala" esamoldea alarde baztertzaille bati buruz ari garenean?
- Zergatik ez dio lehentasuneko tratamendua eman alarde mixtoari?
- Hori al da aurrerantzean jarraituko duen bidea EITBk emakume eta gizonezkoen berdintasunari dagokionean?



Gasteizen, 2009ko uztailaren 7an

**Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea**